

Gaur izango omen da.

Baliteke bihar izatea.

Bitartean azkenaldiko bidetik jarraitzen dut, ez diot utzi nire errutinari, egunerokotasunak lotuko zaitu eta horrekin, horrek damaizun babesarekin zeureganatuko duzu zure izatea. Askatasunaren ihakina irudi dakizuke balizko irakurle horri, ez nauzu iritzi berekoa, arrazoi emango badizut ere... bai hara, lotura askatasunarekin bateratzerik ez dago, alabaina, askatasuna zoriontasunari atxikitzen diotenen artekoa bazara garbi diotsut loturaren, ezagunaren, auresangarriaren babesaren zorionaren oso pareko egoera dela.

Askojakin batek halaxe zioen eta nor den esango ez badut ere, bere edukiari ohore eginez nahi nioke adierazleari gorazarre egin, zioen bada gizabanako hark, zoriontasuna zerbait lortzeko bidean egoteak eta batez ere horretaz jakitun izateak damaigula. Unerik gogobetegarrienak halakoxeak izan bide dira, baieztan dezadan, bai halaxe dira, eskarmentuz ari natzaizu oraingoan, lorpena ez baita asebetegarria, aitzitik bai lortu aurreko unea, erdietsiko duzula nabarmen duzun eta azken mugimendu edo ñabardurak osatzen dituzuneko aldi hori bezain lipar gozagarririk ez dago, zinez diotsut.

Izan ere, txoria eskuan duzunean ez baita itxaro zenuena, zuk txoria baitzenuen maite.

